

UDABERRIKO KONTUAK

Udaberria heltzen denean, zelaiak lorez betetzen dira: **bitxiloreak**, **txilintxak**, **mitxoletak**...

Mitxoletak soroetan agertzen dira

udaberrian; **orban** gorriak dirudite, zelai berde-berdeetan agertzen diren orban gorri-gorriak.

Udaberrian, marrubiak fruitu txiki eta usaintsuak ematen hasten dira.

Enarek, hotz egiten hasitakoan, alde egin zuten eta udaberrian berriro etortzen dira gurera.

Enarek buztinez eta lastoz egiten dituzte habiak teilatu-hegalen azpian.

Habietan hiru-sei arrautza **erruten** dituzte enarek, eta horietatik jaiotzen zaizkie txitak.

Erleentzat ere zoramena izaten da udaberria, zelai guztiak lorez betetzen baitira.

Loreen polena bildu eta nektarra xurgatzen diete erleek. Gero, polenaz eta nektarraz, eztia egiten dute erlauntzean.

Tximeletek ere, loreek bezala, kolore bizi zoragarritz janzten dituzte zelaiak.

- **Bitxiloreak**, **txilintxak**, **mitxoletak**: loreak dira
- **Enara**: txori bat
- **Erruten**: ipintzen



1. Lore hauetatik, zeintzuk agertzen dira testuan?

- | | | |
|--------------------------------------|-------------------------------------|-------------------------------------|
| ☐ bitxiloreak | ☐ ezki-lorea | ☐ txilintxak |
| ☐ jasminak | ☐ mitxoletak | ☐ tulipanak |

2. Non hazten dira mitxoletak?

.....
...

3. Zein urtaroan etortzen dira enarak?

- ☐ Udaberrian
- ☐ Udan
- ☐ Udazkenean
- ☐ Neguan



4. Osatu testua: (Aukeratu hitza)

Enarek eta

..... egiten dituzte habiak.

Enarek azpian
erruten dituzte arrautzak.

BUZTINEZ TEILATU-HEGALEN LASTOZ

5. Idatzi E egia bada eta G gezurra bada.

- Erleek loreen polena xurgatzen dute.
- Erleek polena eta nektarra erabiltzen dituzte ezta egiteko.
- Zelaiek kolore biziz jartzen dituzte tximeletak
- Tximeletek kolore biziz janzten dituzte zelaiak.

